

XXIV. 'Hiru Haundiak' urriaren 11n egingo da eta nobedadeak dakartza Euskadiko gailurretatik izango dituen 101 kilometroetan

Vital Fundazioa Kulturunean egingo da Manuel Iradier Txangolari Elkarteak antolatzen duen probaren aurkezpena. Proba urriaren 11n egingo da eta 1.000 parte-hartzaile izango ditu

Manuel Iradier Txangolari Elkarteak, Vital Fundazioa babesle nagusi duela, xehetasun guztiak amaitzen ari da 'Hiru Haundiak' (bi urtean behin egiten da) proba datorren larunbatean, urriak 11, egin dadin. Aitzindaria da Estatu osoko iraupen handiko mendi lasterketen artean, eta edizio honetan aldaketak izango ditu ibilbidean, baita irteeran (Asparrena) eta helmugan (Zuia) ere. Aurkezpena gaur goizean egin da Vital Fundazioa Kulturunean, eta bertan izan dira erakunde laguntzaile nagusia, **Vital Fundazioa**, eta baita Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Udalak, Administrazio Batzarrak, enpresa laguntzaileak eta Hiru Haundiak ekimenaren batzorde antolatzailea ere.

1.000 korrikalari (3.000 baino gehiago zeuden alde aurreko zozketa egin zenean) eta 500 boluntario izango dira protagonista egun gutxi barru Euskadiko hiru tontor altuenetatik egingo den ibilbide historikoan: **Aizkorri, Anboto eta Gorbeia**. Ibilbide horrek hainbat berrikuntza dakartza 24. edizio honetan. *“Lehenik eta behin, irteera eta helmuga aldatuta. Etengabeko hobekuntzari eusteko, eta orain arte parte hartu duten korrikalarien eskaerei erantzuteko, pasabide batzuk hobetu dira, baita horiei dagokien seinaleetika ere”,* azpimarratu du **Fernando Casi** Txangolari Elkartearen presidenteak. Gogorarazi duenez, hiru edizioen ondoren, *“irteera eta helmuga aldatu ditugu, eta Araia (Asparrena) izango da abiapuntua hilaren 11n, 00:00etan, eta Murgia (Zuia) helmuga. Bertara hasiko dira heltzen lehenengo korrikalariak urriaren 11n, larunbata, 10:00etatik aurrera”*.

Ingurune naturala errespetatzea

Vital Fundazioa probaren erakunde babesle nagusiari dagokionez, **Arantxa Ibañez de Opacua** zuzendariak azpimarratu du Hiru Haundiak “Euskal Herrian erreferentzia den iraupen luzeko lasterketa dela azpimarratu du, mendia maite duen orok eta trail lasterkari orok egin nahi duen proba. Euskadin eskakizun eta ospe handiena duen ultradistantzia probetako bat da. Milaka pertsonak hartu nahi dute parte lasterketa horretan, ingurune natural paregabea eta ingurumenarekiko errespetu zorrotzeko giroan”.

Gainditu beharreko hiru gailurrak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan daude; lurralde horietako foru aldundiek ere laguntzen diote 'Hiru

Haundiak' ekimenari. Hala nabarmendu du **Ana del Val Arabako Kultura eta Kirol diputatuak**. Horrela, **Ana del Val, Kultura eta Kirol Saileko Foru Diputatuak**, esan du: "Arabako Foru Aldundiak ezin zuen huts egin, beti bezala, gure lurralderako hain esanguratsua den ekitaldi honetan. Arabarrak kirol-jardueratan parte hartze indize handiagatik nabarmentzen dira, eta, gainera, orografia eta natur inguru apartekoak ditugu, tamaina horretako ekitaldiak hartzeko eszenatoki ideal bihurtzen gaituztenak. Ibilbide hori nabarmentzekoa da, bai gogortasunagatik, bai gure paisaien berezko edertasunagatik".

Eusko Jaurlaritzak, **Gorka Iturriaga, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendariak**, antolakuntzari eskertu nahi izan dio: "etengabeko bilakaeran dagoen tradiziozko proba izaten jarraitzea. Gure altxor naturaletan garatutako proba batek, hiru aldundien, gobernuaren eta udalen lankidetzarekin, auzolanaren aldeko gure apustuarekin bat egiten duela nabarmendu nahi dugu. Lehendakariak aurreratu zuen ondorengo erronken garrantzia: ongizate emozionala, komunitate sentimendua eta herrialdeko kide izatea, esan dezakegu erratzeko arrisku barik, "Hiru Handiak" bere muinean errotuta dituela ezaugarri hauek. Kirola eta jarduera fisikoa eraldaketa sozialerako funtsezko elementu gisa, beti ere ikuspegi positiboan".

Gipuzkoaren izenean, **Libe Otegui Turismo Zuzendari Foralak**, azpimarratu du "Gipuzkoan erabaki sendoz ari garela lanean trail eta mendiko kirolen esparruan erreferentziazko helmuga bihurtzeko. Horretarako beharrezko osagaiak ditugu: paisaia pribilegiatuak, azpiegitura egokiak eta komunitate sutsua, ikuspegi hau errealitate bihurtzeko. Apostu hau indartzeko ekimenak bultzatzen ari gara: ibilbide berrien sorrera, kirol klub eta erakundeekin lankidetzak, eta nazioarteko mapan Gipuzkoa kokatuko duten ekitaldi eta lasterketen sustapena. Gainera, jasangarritasuna, ingurumenarekiko errespetua eta proba igarotzen den herri bakoitzaren izaera berezia ere nabarmendu nahi ditugu. Gure Plan Estrategiko berriak horretan sakontzen du, gure paisaia baliotsua zaintzean, "Hiru Handiak" bezalako herri izaerako probek maitasunez egiten duten bezela".

Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiekin batera, proba igarotzen den herrien lankidetzak bikaina azpimarratu behar da, oso garrantzitsuak baitira proba behar bezala garatu dadin, eta Manuel Iradier Txangolari elkarteak definitzen duen ezaugarri bat du probak: ingurumenarekiko errespetu zorrotza. Izan ere, Aizkorri-Aratz, Urkiola eta Gorbeia Parke Naturalak zeharkatzen ditu, eta horrek ahalik eta xehetasunik txikienak zaintzera behartzen du, ingurumenak inpakturik txikiena ere jasan ez dezan.

0 Km produktuen igoera

Urriaren 11ko hitzordua goizaldean hasiko da, hau da, **00:00etan, Araitatik**. Hortik aurrera, **Aizkorriko** igoerari ekin ondoren, ordubetea (aurreikusitako lehenengo igarotzea kontuan hartuta), parte-hartzaileak **Levear-Axpurutik (02:15), Landatik**

(04:10), **Kruzeta** mendatetik (05:10), **Anbototik** (06:18), **Otxandiotik** (07.02), **Zubialdetik** (08:31), **Gorbeatik** (09:26) igaroko dira eta Murgiako helmugara lehenengo iritsiera 10:23ak aldera izango da. Guztira, 101 kilometro Euskal Herriko tontor enblematikoenak gaindituz eta ingurune benetan eder eta naturaletatik.

Parte-hartzaile guztietatik, gehienak Euskadikoak dira, bai eta Estatuko gainerako eremu geografikoetakoak eta atzerriko herrialdeetakoak ere (% 13). Generoari dagokionez, emakumezko korrikalarien presentzia % 19 inguru handitu da. Azpimarratzekoa da, halaber, Manuel Iradier Txangolari Elkarteak, bere ingurunetik jasotzen duen babesa eskertzeko, kausa solidario bati ematen diola laguntza, kasu honetan **Elikagaien Bankua GKeri**. Helburua: 0 hondakin. Gainera, aurten tokiko produktuen bolumena handitu da horniduretan, **Hazi Fundazioarekin** egindako akordio bati esker.



HIRU HAUNDIAK

Sdad.Excursionista Manuel Iradier (Komunikazioa)

Aitor Buendía Tfnoa: 659 16 88 78

egunon.komunika@gmail.com



@hiru_haundiak

Vitoria-Gasteiz, 2025